



Kultura
Zientifikoko
Katedra
C tedra
Cultura
Cientifica



BIDEBARRIETA ZIENTIFIKOA

Hitzaldi-solasaldia Ana Rodriguez Larradekin

Zaintzaileen ongizatea, gizartearen ongizatea

Bilbon, 2025eko urriaren 22an. Zaintzan aritzen direnak, familian zein arlo profesionalean, gizarte-kohesioa bermatzeko funtsezko zutabea dira. Bere papera bereziki garrantzitsua da Euskadi bezalako lurraldeetan, [non Euskal Estatistika Erakundearen \(Eustat\) datuen arabera](#), 65 urtetik gorako pertsonak biztanleriaren % 23 ziren 2022an.

Hala eta guztiz ere, zaintzan aritzen direnen errealitateari buruzko ikerketak oraindik ez du merezi duen arreta jaso. Zainketak goitik behera baldintzatzen du lan hori egiten dutenen familia-bizitza, lan esparrua eta gizarte-bizitza. Gainera, eragin zuzena du euren osasunean eta ongizatean eta, ondorioz, baita beraien kargu dauden pertsonen ematen dieten zainketen kalitatean ere.

Erronka horren inguruan gogoeta egiteko, Ana Rodriguez Larrad fisioterapeuta, EHUKo irakasle eta ikertzaileak "Zaintzaileen ongizatea, gizartearen ongizatea" hitzaldi-solasaldia eskainiko du Bilboko Bidebarrietako Liburutegian **datorren asteazkenean, urriak 29, 19:00etan**. Hitzaldia euskaraz izango da eta aldi bereko itzulpena egongo da gazteleraz.

Hitzaldian zehar, Rodriguez Larradek zaintzaileen osasuna eta bizi-kalitatea hobetzeko estrategien esperientziak eta ebidentziak partekatuko ditu: ariketa fisikoko programetatik hasi eta exoeskeletoak bezalako konponbide teknologiko berritzaileetaraino.

Hitzaldi-solasaldia [EHUKo Kultura Zientifikoko Katedrak](#) eta **Bidebarrieta Liburutegiak** bultzatutako **Bidebarrieta Zientifikoa** hitzaldi-zikloaren barruan. Aurrez aurre zein *streaming* bidez jarraitu ahal izango da, [KulturguneaTB](#) kanalean. Sarrera librea da, eserlekuak bete arte.

Hizlaria

[Ana Rodriguez Larrad](#) Osasun Publikoan eta Medikuntza Prebentiboan doktorea da Euskal Herriko Unibertsitatean. Gainera, fisioterapeuta da eta EHUKo Medikuntza eta Erizaintza Fakultateko Fisiologia Sailean irakasle.

Bestalde, ikerketa-lana egiten du AgeingOn taldean, ariketa eta jarduera fisikoaren bitartez pertsona guztientzako zahartze osasungarria eta bizigarria sustatzeko ezagutza sortzen.



Kultura
Zientifikoko
Katedra
Cátedra
Cultura
Científica



Hitzaldi-solasaldia: "Zaintzaileen ongizatea, gizartearen ongizatea"

Hizlaria: Ana Rodríguez Larrad, Medikuntza Prebentiboan eta Osasun Publikoan doktorea eta EHUko irakaslea.

Data: urriak 29, asteazkena.

Ordua: 19:00etan.

Lekua: Bidebarrieta Liburutegia (Bidebarrieta, 4 – Bilbo).

Hizkuntza: euskara. Aldi bereko itzulpena gaztelerara.



Kultura
Zientifikoko
Katedra
Cátedra
Cultura
Científica



BIDEBARRIETA CIENTÍFICA

Charla-coloquio con Ana Rodriguez Larrad

El bienestar de las personas cuidadoras, el bienestar de la sociedad

Bilbao, 22 de octubre de 2025. Quienes se dedican a los cuidados, ya sea en el ámbito familiar o en el profesional, constituyen un pilar fundamental para garantizar la cohesión social. Su papel resulta especialmente relevante en territorios como Euskadi, donde según [datos del Instituto Vasco de Estadística \(Eustat\)](#), las personas de 65 años y más representaban en 2022 el 23% de la población.

A pesar de ello, la investigación en torno a la realidad de quienes se dedican al cuidado aún no ha recibido la atención que merece. Esta labor condiciona de manera profunda la vida familiar, laboral y social de quienes la desempeñan, con un impacto directo en su salud y bienestar y, en consecuencia, en la calidad de los cuidados que prestan a otras personas.

Para reflexionar sobre este desafío, la fisioterapeuta, profesora e investigadora de la EHU, Ana Rodriguez Larrad, ofrecerá la charla-coloquio "Zaintzaileen ongizatea, gizartearen ongizatea (El bienestar de las personas cuidadoras, el bienestar de la sociedad)" el próximo miércoles, 29 de octubre a las 19:00 horas en la Biblioteca de Bidebarrieta de Bilbao.

A lo largo de su intervención, Rodriguez Larrad compartirá experiencias y evidencias de estrategias para mejorar la salud y calidad de vida de las personas cuidadoras: desde programas de ejercicio físico hasta soluciones tecnológicas innovadoras como los exoesqueletos.

La charla-coloquio, que se enmarca en el ciclo de conferencias Bidebarrieta Científica, impulsadas por la [Cátedra de Cultura Científica de la EHU](#) y la **Biblioteca Bidebarrieta**, se podrá seguir tanto de manera presencial como vía *streaming* a través del canal [KulturguneaTB](#). La entrada es libre hasta completar aforo.

La conferenciante

[Ana Rodriguez Larrad](#) es doctora en Salud Pública y Medicina Preventiva en la Universidad del País Vasco. Es fisioterapeuta y profesora en el Departamento de Fisiología de la Facultad de Medicina y Enfermería de la EHU.

Además, desarrolla su labor investigadora en el grupo **AgeingOn**, dedicado a generar conocimiento para promover un envejecimiento saludable y estimulante para todas las personas a través del ejercicio y de la actividad física.



Kultura
Zientifikoko
Katedra
Cátedra
Cultura
Científica



--

Charla-coloquio: "Zaintzaileen ongizatea, gizartearen ongizatea (El bienestar de las personas cuidadoras, el bienestar de la sociedad)"

Conferenciante: Ana Rodríguez Larrad, doctora en Medicina Preventiva y Salud Pública y profesora de la EHU.

Fecha: miércoles, 29 de octubre.

Hora: 19:00 horas.

Lugar: Biblioteca Bidebarrieta (Calle Bidebarrieta, 4 – Bilbao)

Idioma: euskera. Traducción simultánea a castellano.